

## 4. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>EGUNAK</b>	Apirilak 21-23-28-30 Maiatzak 5-7	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	Bilboko IVAP A3 gela Rekalde zumarkalea, 18 Bilbo
<b>IRAUPENA</b>	15 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	09:00 - 11:30
<b>ESKATZEKO AZKEN EGUNA</b>	Martxoak 20	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Martxoak 23 - 27
<b>IKASLE KOPURUA</b>	10 gehienez	<b>NORENTZAT</b>	C2 mailako azterketa prestatzea helburu duten EAEko herri- administrazioetako langileentzat. Derrigorrezkoa da C1 maila egiaztatuta izatea.
<b>IRAKASLEA</b>	AEK		

### ZER LORTU NAHI DA

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	4. HE iritzi-artikuluaren sortzen trebatzea. Iritzi-artikulu horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
<b>HELBURU ZEHATZAK</b>	Azterketaren aurkezpena egitea. IVAPeko proben balorazio-irizpideak azaltzea: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna. Eredu onak, idazteko estrategiak eta eskemak lantzea Egokitasunaren azalpena ematea ariketak egitea. Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak ematea eta ariketak egitea. Aberastasunaren gaineko argibide batzuk ematea eta ariketak egitea. Zuzentasunari buruzko azalpenak ematea: oinarrizkoak diren akats larriak aipatzea, aholkuak ematea.
<b>GAITASUNAK</b>	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da iritzi-artikuluaren sortu behar duenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

### PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

<b>METODOLOGIA</b>	Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna. Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.
--------------------	---



## 4. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

### PROGRAMA

#### 1. saioa:

C2 mailaren deskribapen orokorra egin.

4. HEren azterketaren egitura azaldu, eta bereziki idazmen-probaren idatzien nondik norakoak.

IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.

Etixerako: iritzi-artikulu bat idatzi, azken eskola-egunean zuzentzeko.

#### 2. saioa:

Testuinguruaren garrantziaz aritu eta ariketak egin.

Idazteko prozesua azaldu: eredu onak idazteko estrategiak.

Iritzi-artikuluaren zirriborroa nola egin azaldu eta ariketak egin.

Etixerako: gaia eman, eta horren gaineko iritzi-artikulu idazteko zirriborroa egin.

#### 3. saioa:

Etxean egindako eskema partekatu, komentatu, hobetu eta zuzendu denon artean.

Gutuna: administrazioko C2 mailako gutunen osagaiak eta ezaugarriak azaldu eta ariketen bidez landu: zirriborroa, agurrak, erregistroa, estilo-aholkuak...

Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.

Etixerako: gutuna idatzi.

#### 4. saioa:

Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.

Aberastasunari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.

Etixerako: puntuazioari eta kohesioari lotutako teoria irakurri.

#### 5. saioa:

C2 mailako testuak idazteko estilo-aholkuak landu ariketen bidez.

Zuzentasunean baloratzen denaren berri eman eta ariketen bidez landu.

Aprobetxamendu-proba.

Etixerako: lehen eskola egunean egindako norbere iritzi-artikulu zuzendu.

#### 6. saioa:

Lehen eskola egunean egindako idazmen-probaren irakaslearen zuzenketa eman, eurek egindakoarekin erkatzeko.

Azken gomendioak eta birpasa ariketak.

Balorazioa.

### EBALUAZIOA

- **Ebaluaketaren helburua:** ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** ebaluaketa egiteko saioetan eskatuko diren ariketak neurtu eta baloratuko dira.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute.  
Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du.

### APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzeta eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.



## 4. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

**ZIURTAGIRI DIGITALA**

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzuetik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

**BAJA  
EMATEKO  
EPEMUGA**

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

**PREZIOA**

145 €

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.  
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.